

baleike



isurketa ibaian...
berriro ere

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbiet

Gurenda Serrano

Itziar Garate

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,
Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,
Haize Galarraga, Xabier Aranguren,
Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,
Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,
Izaga Garzia, Beñat Fernandez de
Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon
Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur
Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola, Imanol Garate,
Joseba Esnal.

Azaleko argazkia

Foronda Kultur Etxea

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94


ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
ze berri	
isurketa narrondo ibaian	8
1928. urteko belaontzian nabigatuz	10
erreportaia	
zinemaldiaren kronika	12
gure zumai zarra	
trini bidasoro blasco	16
orain hamar urte	19
olarru zopa	20
puntocom	22
kirolak	
zesta punta	23
kultura	24
zumaiako arte ez horren ezaguna	
imanol azkueren egun handia	
antzerki denboraldia	
zine forum	
asteburu mikologikoa	
agenda	30



erreportaia
Zinemaldiko kronikak
koldo landaluze

“Lerro hauen asmoa
Zinemaldia izeneko
planeta ezezaguneko
mikrokosmos
ugarietako batera
urbildu eta erakustea
besterik ez da.”

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa

gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Ibaia gorriz margotu digute

Miriam Romatet



Zenbait herrialdetan festa egun bereziak ospatzeko, airean globoak bota edo haizera konfeti eta serpentinak zabaltzen diren bezala, ibaia margotu ere egiten dute; horrela, San Patrizio eguna ospatzeko, Irlandan edo Ameriketako hainbat hiritan ibaia berde-berde bihurtzen dituzte.

Guk festak gogoko ditugu, eta haiek iristean kanpaiek eta katxaperoek ematen dute horren berri. Hala ere, iraileko Sanmielekin udako festak bukatuko genituelakoan, norbaitek gure ibaia kolorez jantzi zuen: herdoil kolorea, gorri ia foxforito kolore lotsagabea ikusten zen Txomin Agirre kaian hasi eta Narrondo ibaiain gora.

Lotsagabea kolorea, lotsagabea hori gertatzen utzi duena, eta are eta lotsagabeago eman dituzten aitzakiak: horrelako enpresa batek, hainbeste diru mugitu eta halako etekinak izango dituenak, pertsona baten akatsari, hanka sartzeari, eragozteara horrelako desastrea; gaur egun, ingurumenarekiko begirunea aho betean darabil-

gunean, 0 akats eta milaka kalitate ziurtagiri garai hauetan?!

Lotsagarria, bestalde, gure, herritarren erantzun eskasa. Kaleetan txutxumutxuak era guztietakoak: isurketak etengabeak daudela, nahiz eta ez izan hau bezain nabarmena, lau arrain hiltzea zer den, isun txiki batekin berdin jarraituko dutela... Astebete geroago, marea gora behera, gure ibaia garbitu da, ez? Eta guztia desagertuta, ahaztuta? Ze erraza!

Eta jarraituko dugu txintxo-txintxo kontenedoreetara papera, kristal eta plastikoak sartzen, olioia jasotzen... Ez zaizue axalkeria iruditzen gero horrelakoen aurrean?

Ingurumena zaintzea guztion lana omen.

Narrondo ibaiaren gorria, lotsa-gorria, benetan.



Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Zumaiako hilerriak edo kanposantuak

Historian zehar, Zumaian zenbait hilerri egon dira. Antzina, Zumaiako parrokiak bi hilerri zituen, Euskal Herriko beste parrokia askok bezala. Bata elizaren barruan zegoen eta bestea, berriz, kanpoan, hegoaldeko harresiari atxikita.

Alboko kaperak Sasiola eta Elorriaga familienak ziren, eta familia horietako kideek hor zuten ehorts lekua, senideak bertan hilobiratzeke.

Hildakoa koltxoi baten gainean eramaten zuten bere bizilekutik parrokiaraino. 1777. urteko parrokiako kontu baten arabera, koltxoia oso egoera txarrean zegoen eta aldatu egin behar izan zuten.

Zumaiako apaizek fuesa komun bat zuten, geroago-ago agiritan ikusiko dugun moduan. Hala ere, harrigarria da horiei fuesa deitzea eta barruko ehorketei, berriz, hilobi. Badakigu fuesa komun hori elizaren barruan zegoela, baina ez dakigu non zehazki.

Barruko hilerria. Bertan, seguru asko, goi mailako eta erdi mailako eliztarrak ehortzen zituzten. Elizaren barruan egindako ehorketa horiei "hilobi" deritze.

1709. urtean, arazo larri bat sortu zen: udaleko kide batzuek parrokiako gurutzadura zabaltzeko asmoa agertu zuten, gizonak esertzeko sei bankurentzako adina leku ez zegoela eta. Hilobien lerro bat kendu nahi zuten, eta ate nagusitik gurutzadura horretaraino bide bat egin, apaingarri gisa. Kaltetutako hilobien jabeek gogor protestatu zuten udalbatzaren aurrean, eta azkenean, ez zuten obrarik egin.

1757. urteko urriaren 2an egindako saioan, hilerri horretako hilobiei buruzko txosten bat aurkeztu zuten. Guztira 144 hilobi zenbatu zituzten, garai hartan Sasiola eta Elorriaga familien alboetako kaperetan zeudenak kontuan hartu gabe. Hilobien inbentarioa egin zuten, eta hilobi hutsak hilobirik ez zuten biztanleen artean banatzea erabaki zuten.

Urte horretan bertan, harlauzak kendu eta egurra jartzen hasi ziren. Beraz, parrokiako lurra 1757. urtearen amaieran eta 1758. urtearen hasieran aldatu zutela esan daiteke. Era berean, obra ordaintzen laguntzeko, hilobien jabeek urtean hamabi errealeko errenta ordain zezatela erabaki zuten.

Kanpoko hilerria. Gela honetan egiten zituzten ehorketei fuesa deitzen zitzairen. Bertan hilobiratzen zituzten hiribilduko behe mailako eliztarrak. Eraikin itxia zen, teilatua, atea eta leihoak zituena.

Hilerria parrokiaren kanporaino hedatzen zen, hegoaldera begira dagoen kanpoko harresiarekiko paralelo, gaur egun ataria dagoen aldean. Hilerriak bi sarbide zituen. Ate bat parrokiaren atarian zegoen, dorrearen azpian, eta bestea, berriz, San Pedro kalean.

Hilerri horren teilatua 1627, 1738 eta 1778. urteetan konpondu zuten. 1778. urteko parrokiako kontuetan, hilerria inguratzen zuten leiho banden konponketa aipatzen da.

Aipatutako hegoaldeko harresiari dagokionez, 187... urteko gertakariak aipatzeko modukoak dira. Parrokiaren hegoaldeko fatxadari atxikita harresi bat zegoen; harresi horrek, elizaren fatxadarekin eta kanpoko bi horma bularrekin batera, lursail angeluzuzen bat ixten zuen aspalditik.

Manuel Gabriel Beobide parrokoaren iritiz, harresi hura bota egin behar zen, hondatuta baitzegoen. Hala, lursaila aprobetxatu ahal izango zuten eliza berritzean. Parrokoak bere nahiaren berri eman zion Eusebio Gurrutxaga alkateari, eta hark ados zegoela azaldu zion. Alkateak harresi zaharra berehala botatzeko agindu zuten.

Langileak:harresia botatzen hasi zirenean, ikaragarriko ezustea hartu zuten: gizakien hondakinak aurkitu zituzten harresiaren atzean. Aurkituntza horrek izugarriko zalaparta sortu zuen herrian.

Hiribilduko alkateak eta parrokoak zuzendu zituzten hezurak Arritokietako hilerria eramateko aurreratzeko lanak. Hezurak estaltzen zituen lurra ere jaso zuten, hilerria eramateko. Ekintza horren bidez, arbasoen errauts sakratuak –lurretan disolbatuta egonda ere– begirunez jaso behar direla erakutsi nahi izan zuten alkateak. Hezurak Arritokietako hilerria apirilaren 2an eramango zirela erabaki zuten alkateak.

Apirilaren 1eko Meza Nagusian, Manuel Gabriel Beobide parrokoak leku aldatze horretan parte hartzea deitu zituen eliztar guztiak. Aurkitutako hezurretan Zumaiaren historia zegoela argudiatu zuten parrokoak.

Apirilaren 2an, parrokia elizaren ondoan aurkitutako gorpuzkiak Arritokietako hilerria eraman zituzten. XVI. mendetik aurrera hobietatik ateratutako gorpuzkiak ziren. Egun horretan, hiribilduko lantegiak eta biltegiak itxita egon ziren, itsasgizonak ez ziren itsasoratu eta zumaiar guztiak begirunea erakutsi zieten arbasoei.

Herri guztia joan zen Requiem mezara; Zingarilliren obra abestu zuten, eta, ondoren, erresponstu orokorra. Meza amaitu ondoren, prozesioan joan ziren Arritokietako hilerriaraino, parrokiako gurutzearen atzetik: lehendabizi, apaizak; jarraian, udalbatzako kide guztiak; eta, ondoren, udal musika banda, hileta martxa bat jotzen.

Hilerria iristean, gorpuzkiz betetako 16 hilkutxak lurreratu zituzten. Hilkutxak bizkarrean eraman zituzten, zumaiarrek hala eskatuta.

Hilerrian, Ne Recordis abestu zuten Arritokietako kaperan. Alkateak, estu eta larri, hitz batzuk esan zituen euskaraz: "Hor daude alkateak, parrokoak, apaizak eta sekularrak, denak batera; hor dago antzinako Zumaiak". Amaitzeko, "Gora Zumaiak!", oihu egin zuten.

Gertaera horrek zumaiarren oroimenean irauteko, hilerrian hilarri bat jartzea erabaki zuten, euskaraz gertaeraren berri emateko.



BEROGAILUAK, EGUTEGIA, HARATEGIA...

Migel Aperribai

Etxera iristen zaidan propaganda ugariak, gutxienetan pizten du nire arre-ta. Maiz galtzen ditut galdu ezineko okasioak. Dirurik gabe harrapatzen naute banketxeen kantuek. Eta ez naute tentatzen opariz betetako autobus bidaia merkeek.

Duela gutxi, ordea, begira-begira geratu nintzaion portaleko ateari itsatsita aurkitu nuen propaganda orriari. Kolore biziko erreklamoek lortzen ez

дутена, kolore bakarreko orri urdin hark lortu zuen. Goitik behera arakatu nuen begi aurrean nuena.

Zumaiako enpresa batek bidalia zen. Neguaren atarian, orri urdin hark berogailuak instalatzeko eskaintza zekarren, prezio eta guzti. Ez nion nik, hala ere, gehiegi erreparatu prezioei. Hizkuntzak eraman zuen nire atentzioa. Erdara hutsean zetorren orria, eta horrek atentzioa eman

zidan. Euskarak ez zu saltzen, non-bait.

Ohituta nago propaganda gehiena erdaraz bakarrik jasotzera. Baina zumaiarrak zumaiarrei zuzentzen zaizkienean, ezin naiz ohitu euskara inondik inora ez agertze horri. Nahiz eta herriko futbol taldeak atera zuen erdal egutegiarekin hasi urtea. Nahiz eta harategian "cerrado en septiembre..." irakurri. Ezin naiz ohitu.

AMAITU GABEKO ESKAILERA

Roberto Tejera-Bollain.

Kaixo lagunok,

Honako lerro hauen bidez zuei jakinarazi eta salatu egin nahi nuke gure etxe ondoan Udalak egin duen "txapuza".

San Jose kaleko 28. atari ondoan amaitu gabeko eskailera bat jarri digute eta ezin goiko kale berrira igo, ez bada sekulako buelta emanda. Obrak urtebete luze geldirik egon ziren eta hasiera-hasieratik bertako auzokook eskailerak jartzea eskatu genuen, ez soilik 28. atariaren ondolan, baita 27. eta 26.aren artean ere. Baina azken hau jarri ez eta bestea hantxe dago, bukatu gabe, eta egiten

digun trabaz gain, poliki-poliki zabor-tegi ere bihurtzen ari da.

Garbi dago San Jose kalea ez dela Beobide ibiltokia eta turistek ikusten ez



dutenez, Udalari berdin dio auzokoak nola bizi garen bertan. Zergak eskaintzen diguten zerbitzuaren arabera ordainduko bagenitu, sikiera merkeago suertatuko litzaiguke Zumaian bizitzea, baina nekatuta gaude erdigunekoentzat espaloi politikak eta bidegorriak ordaintzen, eta gure auzunean ez da ezer berriztatzen.

Diodana gezurra ez dela ikusteko, erantsita doazkizue argazki batzuk, ea argitaratzerik baduzuen mundu guztiak ikus dezala bestelako Zumaia, turistentzat ez dena.

Besterik gabe, eskerrik asko alde zuretik eta hurren arte.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

asteguncian: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Arma, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Bat

Eneko Dorronsoro



Distantziak markatzen dun hesiaren bestaldetik idazten det oraingoan ere. Ezin ekidin. Nahizta gero herriko berriak kuadrilan zabaltzen dituna ni izan: "Ze esaten dek! Ta hori noizko kontua dala?". Berriz amai kotilla deitzeko. Baina egunerokotasuna da diferentzia. Ikasketak-lana hizkuntza unibertsaletik kanpo gelditzen diran kirol-kafe lengoaiak autoktonoak. Asteburuko txikiteoa ahaztu gabe. Eta betiere zehaztasun mekanikoz; Goikoneko zazpietako juntadizoa bezela Zallaneko mus partida, Leizen eguerdiko kafea edo Nikoleko ajedrez erronka. Entrenamentuko adar-jotzeak, eta bestuarioko irteera ordena: ni beti azkenarekin batera. Erreztu ere egiten du ondorioz hesia igaro eta distantzia janaz datorrenaren itzulera. Haserako deskoloke momentua pasata, inoiz hemendik hara (edo handik honea, segun nundik beirutzen dan) egin ez bagenu bezela. Orduan berriz, aprobetxatu egin behar, harako edo honeako (orain ere ikuspuntua jokoan) bidea berregiteko momentua iristean maleta autoktonotasunez gainezka eramateak uniberso unibertsala geureago egiten digulako. Ikusi ditut abenidako geraneoak, isunen itsulapikoa. Guraso berri diran seme zaharrak. Hondartzaren mutur bat bestarekin komunikatzea lortzen duten ibiltariak (hondartzaren lekuan erribera aukeratzen dutenak ere uler bitez). Baina Pakoren bertsoik entzun gabe nator oraingoan. Epi, eskertuko nitek bialdu ezkeo.

Bi

Antxoka Agirre



Lengo batean hilabete batzutarako Malasiara joan den lagun batekin aritu nitzan telefonotik. Zauzko tabernaren batean berriketan aritu garenean baino hobeto entzuten zitzaion Kualalumpurretik (bere atzian builaka diskutitzen ari zian bi malasio ere earki entzuten zian), eta harriritu, komentatzen nion komunikazioaren aroarena etzala broma, mobilen anuntzio aldrebes hoierei errespetu gehiagorekin begiratuko niela hemendik aurrera. Bea etzeon hain konbentzitura, "aman babarrunak 'via satellite' jateko aukera izan arte kontu hoielik danak nahiko alperrik dituk neretzat". Teknologia berriekin Pakoren bertsoak bialtzeaz gain Zumaia-Katalunia bertso saioa ere egin zitekeek, Eneko. Mobileko sms mezueta zortziko txikiak erabat egoki sartzen dituk neurritz, eta idazten den bitartean pentsatzeko denbora ere ematen duenez bat-batekoak baino askoz bertso txukunagoak izaten dituk (hasi bai eta bukatu baita, hankaluzerik ez, potorik ez...). Batetik bestera biali, eta elkarrirerantz; bat-batekoa eta idatziaren arteko genero berria. Euskaltelekoentzat anuntzio egokia izan daiteke, behintzat... Eta hik Epi nola ikusten dituk distantziaren, teknologia berrien eta bertsoen asunto hauek?

Hiru

Xabier Aizpurua



Dorronsoro ta Agirre, JoxeRipiau talde errepikaezinak esaten zian: "esaidazu laguna, Gasteizen zer egin ba, askoz hobeto egoten da ene herrian!". Hemen natxiok, Arabako lautadan oasi dan Gasteiz ondo urbanizatuan. "Over the Game" izena dun ziber honetan hari dituk egosten urban kulturaren apustu eta telematikak, amaren babarrunen faltan... Ordenagailuak plastikozko tuboen bidez sabaira zeudek konektatuta, sare metaliko batek pilatzen dizkik tubo guztiak eta ordenagailu zentralera ziazatik. Nork ziurtatzen ziguk Trinidadian hirugarren zati hau ez duela harrerako betaurrekodunak ezkutuan irakurri. Askorentzat jolastokia dela konturatu nauk. Hemengo jolasak eginga zetozek, hobia edo exkaxagoa izango haiz, eta dagokian

mailara iritsitakoan pott egingo duk; baina sekula santan ez duk joku horietako bat asmatuko, berrituko, moldatuko. Dena makinak emaniko arauen arabera egiten dik jokalaraiak. Geldirik, pantaila aurean. Hankak mugitu gabe. Sormena? Maitia nun zira... Maitasun poemak sms bidez kontratatu daitezkeen garaian, telebertsoa edo bertsomezua ere jarri zitekeek salgai. Maitasunari buruzkoak euro batean, politikokoak merkeago (eskaria handituz errentagarritasuna gehitzeko), Maiarenak karidadez 50 zentimotan, Maialenenak 2 eurotxo, nik uste Egaña "bertsomezu Deluxe" sailari etekina ateratzeko prest egon litekeela. Eta ordainduriko denbora agortu ziberrean, dakizuen gameover hori. Mxk.

Urola garbia, oraingoan bai?

Berriro ere, guztiona den ibaiak beste eraso bat jasan behar izan du. Irailaren 20an Narrondo ibaia zeharo gorri azaldu zen "Galvanizados Olaizola"-k egindako isurketaren ondorioz. Lotsagarria iruditzen zaigu oraindik ere egoera hauek ohikoak izatea gure herrian.

Urtero argitaratzen duten txostenean, Foru Aldundiak beti azpimarratzen du Urola ibaiko uraren kalitatea hobetzen ari dela, baina Aizarnazabalen berriro okertzen ari da, hango papelerak botatzen dituen zelulosa kopuru handien ondorioz.

Ura denona da, eta denok nahi dugu behingoz Urola garbia ikusi. Hortik aparte, dirutza gastatzen ari gara araztegia egiten, eta gero, edozeini okurritzen zaionean, dena txerri egiten du.

Aspalditik esaten ari gara Urolak hiru puntu beltz dituela, eta horien arazoa konponduz gero, Urola garbia ikusiko genuke. Denok dakigu hiru puntu hauek non dauden: Ortiz, Zubialdeko papelerara eta Galvanizados.

Oraingo honetan, Udalaren eta Foru Aldundiaren jarraera askoz ere positiboagoa izan da, eta espero dugu horrela jarraitzea.

Guk, gure aldetik, beste bide bat jorratzen hasi gara eta Ingurumenaren Fiskalarengana jo dugu. Bere ustetan, garaia da betirako arazo honi irtenbidea bilatzeko eta interes handiarekin hartu zuen gara.

Ikusiko dugu!

ZUMAIAKO NATUR TALDEA



Irailare 25ean isurketa salatzeako bilkurara deia egin zuen Zumaiaiko Natur Taldeak

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

GOIKO BODEGOIA

"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861191



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885389

KAIA
Kafetegia

1928. urteko belaontzian nabigatuz

Egilea Xanti Osa arotza da eta errestaurazio onenaren saria irabazi du Getxon.

ITSASO IBARRA

Kirol portuan hamaika itsasontzi ikus daitezke, horien artean bada bat bertatik pasatzen direnen begiradak erakartzen dituena. Guztiz egurrezkoa den belaontzi honen jabea eta egilea Xanti Osa arotza dugu. Berarekin elkartu gara, belaontziaren nondik norakoak ezagutzeko asmoz.

Xanti Osak 2002ko udaberrian ekarri zuen 1928. urtean eraikitako belaontzia, berritzeko asmoz. Ontzi hau, "garai batekoa" sailean sartzen dute adituek. Bere hitzetan, "beti izan dut itsasontziak egiteko zaletasuna, lehendik traine-ruak eta batelak egiten aritu izan naiz. Belaontzia egite-

ko ideia beti eduki dut eta aukera eduki dudanean hasi naiz lanean".

Belaontzia ekarri zuenean, berritu eta udaran itsasora irteteko esperantza zuen Xantik; hala ere, egurra nahiko gaizki zeukanez ontzia berritzeko lanari ekin zion arotzak. Urtebete igaro zuen ontzia berritzen eta dioenez, "lan handia izan da; ia dena berritu behar izan baitut". Lanean, ordea, ez da bakarrik aritu, asteburuetan bere lehengusu Joxe eta Joxe Migelen laguntza izan baitu. Ontzia berritzera-koan, lan handiena kaskoa egiterakoan eduki duela azaldu du Xantik. Gainontzeko zatiak, berriz, gutxinaka-gutxinaka egin ditu. Kanpoaldea eta barnealdea

"Nire ilusioa barkuak
egiten bizi ahal
izatea da"





gutziz egurrezkoa du berritutako belaontziak. 11 metro luze da; masta, berriz, 15 metrokoa. Barnealdean, berriz, sei lagunentzako tokia dauka Mowgli belaontziak.

Uztailetik uztailean lanean jardun ostean, eta belaontzia gidatzeko beharrezkoa zen patroi titulua lortu ondoren, itsasoarekin bat egiteko unea iritsi zen. 2003ko uztailean uretaratu zuten Mowgli belaontzia; "Beduan egin genuen botadura eta, txanpan botila ere puskatu genuen".

Harrezkero, haizearekin batera itsasoan barrena ibili izan dira Xanti eta familia. Xantik dioenez, "belan pixka bat ibilita nengoen beste lagun batzuekin. Baina, gehienbat orain ari gara ikasten. Martxa eta gustua hartzen ari gara". Azaldu duenez, "oraindik oso urrutira ez gara joan, baina, Lekeitio eta Ondarroa aldera joan izan gara". Getxon ere izan ziren, "La regata de la gitana" deritzon estropadan parte hartzen. Bertan, ontzi klasikoek hartzen dute parte. Helmugara laugarren iristiaz gain, beste sari bat ere eskuratu zuten; "errestaurazio onenaren lehendabiziko saria lortu genuen", dio Xantik. Aurten Getxon

bakarrik ospatzen dira horrelako estropadak. Hala ere, Hondarrribian ontzi klasikoentzako beste estropada bat jaritzeko asmoa dago, eta hala bada, agian bertan ere izango dira belaontzia gidatuz.

Bien bitartean, Xantik Mowgli belaontziarekin bidaia txikiak egiten jarraituko du. Bestalde, berak azaldu duen moduan, "nire ilusioa barkuak egiten eta berritzen bizi ahal izatea da". Nahi hori betetzeko bidea zabaltzen zaion bitartean, bestelako lanak egiten ditu arotzak.

Kanoiak

Beste lan horietariko bat dugu, Anbulatorio ondoko oinezkoen zubian, paolean eta kirol portuan ikus daitezkeen kanoiak. Horiek dituzten egurrezko karroak Xantik berak egin ditu. Udalak emandako planoei jarraituz osatu ditu arotzak gurdi hauek. Dioenez, "karroen egurra haritza da, eta ondorioz, urte batzuk iraungo dute".

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

**ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROEZTEGIA**



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



koldo landaluze

Zinemaldiaren kronika

Zinemaldiaren atzealde ugarietan zer egoten den zehatz-mehatz azaltzeko agindu zidatenean, ezinbestean Jonathan Harker-ek egin zuen egunkaria etorri zitzaidan burura, hau da, Dracula izeneko Trantsilvaniako aristokrata odol garbiko hura bisitatzeko agindu ziotenean idatzitakoa. Urrutitik begiratuta eta askorik pentsatu gabe, Donostiara zortzi egunetan joatea, nahi adina pelikula ikustera, doan, gainera, pagotxa eman lezake. Agian antzeko zerbait pentsatuko zuen Harker onkote hark ere, banpiro ospetsuaren letaginek koska egin aurretik, Europa misteriotsuaren erdialderako bidaiara hura eskaini ziotenean, Londres hotz hartatik eta Mina andregai milikarengandik urrun. Lerro hauen asmoa, ordea, ez da hainbestekoa: Zinemaldia izeneko planeta ezezaguneko mikrokosmos ugarietako batera hurbildu eta erakustea besterik ez da.

Irailak 17

Hasi da zinemaldiaren zoramena. Aurten, behintzat, akreditazioa jasotzeko ez dut ilaran zain egon behar izan Kurasaalean eta alde egin dut Madrillgo prentsa iritsi aurretik, olatuan etortzen baitira, eta haien hitzaspertua sufrimendu hutsa da nagusikeriara ohituta ez gaudenontzat. Duela gutxi, Carlos Boyero kritikoak ederki erakutsi zuen iritsi zela zinemaldira: azafata batek ezin zuen bere akreditazioa aurkitu eta gaixo haren kontra hasi zen, oldarkor, horrelakorik Cannes-en ez omen zitzaion gertatzen esanez.


Arratsaldeko lauak Principal antzokian. Argiak itzali eta Dalirenak bezalako begi batzuek ñir-ñir egiten dute iluntasunean. Zinemaldiko kortina da, "Vera Drake", Zabaltegioko lehen

proiektzioa, hasi aurretikoa. Pelikula ikusi eta lehen desengainua. Kritika idatzi eta berriz ere Principalera bueltatu naiz, bigarren round-era, Jean-Luc Godard itzaltsuaren pelikula ikustera. "Al final de la escapada"-ren egilea zerutik lurrera dator, ordea, giza zoritxarraz hitz egitera. Astuna baino astunagoa. Txistuak nagusi amaieran, eta tartean norbait, bakan bat, txaloka. Begiratu diot ausartari eta... hara zein den!, Miguel Marías, Garciren "Que grande es el cine"-ko tertulianoetako bat. Ez naiz harritzen. Godarden egurraren ondoren, denbora gutxi daukat, zigarrotxoa erretzeko besterik ez, areto ilunera sartu aurretik. Oraingoan merezi zuen, gainera; sorgin orduan, eguneko lehenengo poza, Hubert Sauper-en "Darwin's Nightmare" film dokumentala.

Irailak 18

Pricipalera sartu aurreko jende multzoetan Woody Allen "Melinda and Melinda" pelikulak izandako harrera ona da nagusi, ez da beste mintzagairik. Manhattan-go klarinete jolea hiri mito bihurtzen ari da pixkanaka; askok diote Allen ikusi dutela han edo hemen bazkaltzen, eta batek zin egiten du Alde Zaharrean ikusi duela pintxoak jaten. Arratsaldeko lauetan beste arrazoi bat daukat Agnès Jaoui maitatzen jarraitzeko. Bere pelikula, "Comme une image", komedia sofistikuaren miraria da. Oliver Stone Donostian da, "Looking for Fidel" pelikularekin. "Platoon"-en egilea ahal duen guztietan itzultzen da Zinemaldira, belodromoa munduko zinema aretorik handiena eta onena dela esan zuenetik eta, batez ere, Quentin Tarantinorekin ahozko istilu larri hura izan zuenetik, 1994an; antolatzaileek lan pila bat egin behar izan zuten elkarrekin berriz topo ez egiteko, eta bakoitzarentzat ibilbide alternatiboak ere egin behar izan zituzten, Donostian.

"Woody Allen hiri mito bihurtzen ari da; batek zin egiten du Alde Zaharrean pintxoak jaten ikusi dutela"



Irailak 19

Zinema festaren ondoren, bestelako festa. Gaueko hamabiak aldera Bebop-era joan naiz, Telmo Esnalekin eta Asier Altunarekin zerbait edatera. Beraien lehenengo pelikulan, "Aupa Etxebeste!" izenekoan, ari dira burubelarri lanean. Aurpegi ezagun asko barraren aurrean. Ederra da edatea, bai, eta are gehiago doan bada. Berriz ere Fermin Muguruzarekin egin dut topo eta Antón Reixa aurkeztu dit, orain zinemako ekoizle lanetan; Martxelo Rubiok txotis hura dakar gogora, ilehori eta beltzaran batekin; giri despistatu itxurako gazte bat Begoña del Tesoren atzetik dabil; gero jakingo nuen mutila zuzendari galestar bat zela eta Begoñak, zirudienez pelikula ikusi zuen bakarrak, laudoriozko hitzak izan zituela pelikularentzat.

Irailak 20

Antzoki Zaharra, erdiko ibilbidea, ezkerreko hirugarren lerroko lehenengo jarlekua. Bakoitzak bere maniak dauzka kokalekuari dagokionez eta, sinetsiezadazue,

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hartz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

EGUZKI PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu eta mantentimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kirol zelaien mantentimendua
- Txostenak eta aholkularitza teknikoak.
- Balorazioak



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309



borroka bizian ibiltzen gara bakoitzak gustuko duen lekua hartzeko, besaulki patio gehiena libre egonagatik. Umeak jarlekuaren jolasean nola, gu ere antzera. Gaur "Diarios de motocicleta" emango dute, Walter Salles brasildarrarena, eta ikusmin handia dago. Aretoa leporaino dago, palkoak barne, Alberto Granadosek eta Che Guevara gazteak moto zahar haren gainean izan zuten iniziazioiko abentura ikusteko.

"Egile berriak saileko pelikulak ikusteko sekulako izua dago, gehienetan izugarritzko drama existentzialak baitira"

ari dira. Horietako bat, atzealdean daukadana, sekulako laudorioak botatzen ari da irentsi duen babarrun platerkadari.

Irailak 21

Argiak itzali eta Pablo Malo donostiarraren "Frío sol de invierno" opera prima hasi baino zertxobait lehenago, Peter Biskind-en "Motos tranquilos, toros salvajes" atera dut, denbora pasa. Atzealdean txutxutxutan ari dira eta ezin horiek entzun gabe irakurtzen jarraitu. Kataluniarrak, laugarren lerroko jarleku guztiak hartuta, egunaren balantze gastronomikoa egiten

 **GAZTE, S.L.**
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

 **EKO**
URRATS

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 592 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAJA

Pelikularen erdialdean ederki egiaztatu nuen babarrun onak izango zirela, katalanak puzker turuteroa bota baitu, eta puzkerraren ondorengo usaina azkar zabaltzen hasi da. Irudipena neukan alboko neska zeharka begira ari zitzaidala, eta ni gorritu egin naiz, Tolosaldeko baratzeaz biraoka. Agian egoe-rak gehiegi zailtzea zeukalako eta bigarren kanoikada etor zitekeelakoan, ikusi dut katalana zutitu eta tximista baino azkarrago pasilloan gora joan dela. Neska hura ez zen gehi-go eseri nire alboan.

Irailak 22

Zinemaldiaren erdialdea iraganda, eraginak nabarmentzen hasiak dira. Nekea, begi gorriak eta "Egile berriak" saileko pelikulak ikusteko sekulako izua, gehienetan izugarritzko drama existentzialak baitira. Atzo Chabrol-en txanda izan zen

eta ondo ikusi genuen zenbaterainoko jenioa daukan paristar-rak "La demoiselle d'honneur" filmean. Gaur, berriz, "María llena eres de gracia"-ren txanda da eta konturatu naiz protagonista, Catalina Sandino Moreno, oso urduri dagoela, kritikak nola hartuko pelikula. Antzoki Zaharraren irteeran dago, zain, eta pelikularen amaierako txalo-zaparradak asko lasaitu du.

Gaueko hamabietan Zabaltegi pelikula bat dago, irrikaz espero dugunetako bat. "Super Size Me" da, Morgan Spurlock-ena, McDonald's-en produktueta oinarritutako dieta zorrotz baten ondorio suntsitzaileak azaltzen dituen dokumentala. Proiekzioa hasi baino lehenago marmar ozena da nagusi aretoan, baina denak isilarazi ditu Carlos Pumaresen oihuak, "¡Quiere hacer el favor de callarse! (Isilduko ahal zara, behingoz!)" esanda.

Irailak 23

Gaur amaitzen da jaialdia niretzat. Azkeneko hitzordua Antzoki Zaharrean, Zhang Yimou-ren "La casa de las dagas voladoras" ikusteko, eta 52. edizioko pelikulen ondorengo taldetxoetan ibili den kondaira kezkarrietako



bat sufritzeko aukera. Kondaira horren protagonista kritiko misteriotsu bat zen, gorputzeko kirats handikoa, inguruko jarlekuetan inor ere ez esertzeko adinako, hitzez hitz entzuna. Ba al da ezer okerragorik eskuko telefonoa itzali ez duen, etengabe gauzak jaten dituen eta pelikula ozenki komentatzen duen gaztetxo bat baino? Bai, ba! Kritiko misteriotsu hori. Tipo horrena egia zen, hezurharagizkoa zen, eta kira-

tsa jariatzea ez ezik, eszenen planifikazioaren gaineko komentarioak egiten zituen etengabe, baita koloreen gainean ere, eszenak txalotu egiten zituen, baita barre egin ere, eta okerreana, ez zen geldirik egoten jarlekuan, eta mugimenduaren eragina zeharo hondatzailea zen. "El exorcista"-ren kamiseta zeraman ikusle batek isiltzeko eskatu dio, baita isildu ere, pelikula bukatu eta argiak piztu direnean, eta orduan konturatu naiz Zinemaldiaren 52. edizioa bukatu egin dela. Atzean geratu dira fotograma on asko, besteak beste Gazteen Epaimahaia izeneko komunitate bitxiak aztertzeko, aldizkako zinemasale anai-diaren antzekoak beraiek, Juan Manuel de Pradaren itxurakoak, dena egiteko gai, baita pelikularik onenak astakeria handienekin txikitzeko ere, gure Jaoui maitearenekin egin zuten bezala.



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

trini bidasoro blasco

“Gure bizitza hortxe pasatu dek. Hondartzan”

...jarraipena

ABELIN LINAZISORO

Beno, orain hik bitan aitaturako gerrara hurbiltzen hasiko gaittun. Errepublika garaian ikurrina legez-tatu zenekoa gogoratzen al haiz?

Ordukoa ondo ez, baina gerokoa bai ondo asko! Gure aitta zanak bi bandera jartzen zitian postetan. Bat Donostikoa, txuri-urdira, eta bestia española, behartuta zegolako. Hala, ba, beno, orduan ikurrina legez-tatu berria zeoan, egun batian okurritu zikak ikurrina jartzia. Goizian jarri eta ahaztu zaku arratsean kentzea. Hurrengo egunian ikurrina falta! Kauen! Gauean karabineroak-edo, hara jun eta, ra! fuera ikurrina, hi! Goiz hartan salto batian dendarra jun, beste bat erosi eta jarri ein ginien. Zer gero! Hura ez zien gehixo kendu.

Errepublika garaiko batzokiarekin gogoratzen al haiz?

Kontu haundirik ez. Akordatzen nauk euskeraz irakurtzen eta idazten ikasteko eskolak ematen zituela. Ni ez nittuan juten, baina bazekiat Jontxu Uranga eta Xanti zapateroneko Jontxu eta hauek danak juten ziala. Uste diat Iñaki Beobideren osabak ematen zula eskola. Ez nauk gogoratzen zeatik gu ez ginan juten. Souan lanian, hondartzan... ez zekiat. Antzerkiak ere eiten zitien. Albi-



“Goizian jari eta ahaztu zaku arratsean kentzea. Hurrengo egunian ikurrina falta! Mekauen!”

zutarrak-eta oso jatorrak ittuan, eta ikus-tera jende asko juten uan.

Gerra piztu zeneko zeozer?

Gerra piztu? Ikusi bauan karlista danak manifestaxioetan bandera españolakin! Jesus! Jesus! Akordatze hutsakin gaixotu eiten nauk. Danak txapel gorrixakin... Eta gero gainera, elkar ikusi ezin... Gero, gerra ondoren, Franco Donostira etortzen zanean, hemengo abertzaliak, fitxaturakoak, paketia hartu eta Donostira juten ittuan,

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

Malaur

ertz
informatika

tresna digi-
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER

Ondarretako kartzelara. Beaxen bila etorri baino lehen, andar Donostira. Gure aitta ere kartzelara eraman zien behin. Gure aittak batela baten egarrixa izan zian beti eta, hala, egun batian etorri zikok Joxe Tximin eta esan zio: Hi, Getaixan bazeok Intxarkundia izeneko batela bat saltzeko. A, bai? Eta jun da gure aitta hori Getaira. Nik ez zekiat zer gertatu zitzakon gizajuari, pixkat edan-edo intzuan-edo, eta hango aguzilak detenitu eta eraman du Donostira kartzelara. Etorri da, orduan, Mikel kojua atejoka eta esan dit: Zuen aitta kartzelan dago! Gure aitta kartzelan dagola? Itxian falta diagu eta ez zekiat non dan, nik. Ba, lurren gainian eiten du lo eta koltxoi bat edo zeozer eramaiozue, Mikelek. Eta nik: Eramango ez zioat, pa! Hartu koltxoia buru gainian eta andar Donostiraino. Garai hartan, hondartzan, guk ez ginikien zeinekin hitz egiten gendun, zeinek zer ideia zeukan, zein zer zan, ezer ez. Guk gure lana ein eta kitto. Baina, gure aittakin famili batek konfiantza haundixa zikan eta haren papeleo dana hauen eskuetara ailagatu uan aitta kartzelan zeon bitartian. Pero, si yo a este señor ya le conozco!, gizonak, yo me hago cargo de este señor, esan zian. Militarra uan. Hala, gabetik goizera gure aitta itxian presentatu uan.

Ez den esan zer egin zuen zuen aittak kartzelara eramateko.
Ezer ez, motel. Gora Euskadi askatuta!, diarra egin zulako Getaixan.



“Paketia hartu eta Donostira juten ittuan, Ondarretako kartzelara. Beaxen bila etorri baino lehen, andar Donostira”

Zenbat denbora eduki zuten ?

Ba... Hilabete bai. Ai, gauza hoiek ez dittuk ahaztutzen! Lehen esanda bezela, hondartzan gauza asko gordetzen ginien. Hoixen tartian pistola bat. Hondartzara zenbait jende guardaespaldakin etortzen zanez, guk pentsatu ginien guardaespalda hoixetako batena izango zala. Hala, gure aitta hori kartzelan dala, batek esan zio: Usted no me conoce a mí? Gure aittak: No me acuerdo. Eta gizon honek: Pues yo ya me acuerdo de usted, que me guardaba una pistola en la playa. Ahora sí, ya me acuerdo –gure aitta horrek- creía que eras un guardaespaldas. Pues no, hark, yo era jefe de unos ladrones. Yo estoy en la cárcel pero mis chicos están trabajando. Pentsa ezak gauzak nola dian.

Gose garaian ondo moldatzen al zineten?

Guk soua ginien. Gero taloak eiteko irina erosi, moakila (l) ein, hura jan eta aurrera. Artairina eiteko Malutonekoak makina bat asmatu zien eta ni haixen etxera juten niñuan artalea pasatzera moakila eiteko. Baina soua ez zeukanak gu baino okerrago. Ibili ein behar gora eta behera! Gero, racionamientoa ematen zien eta hilean behin ematen ziguten racionamiento hari beti beira egon behar. Zer erremixo! Gure aittak kainaberakin arrantzan ere eite zian. Hor Itzunen ibiltzen uan. Lapa patatekin ere jaten ginien, pentsa zak, eta olarrua patatakin asko. Oain ez dek jaten, behar-



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694**

AROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

*“Artairina eiteko Malutonekuak makina bat asmatu zien eta ni haixen etxera
juten niñuan artalia
pasatzera moakila eiteko!”*

bada orduan asko jan gendulako. Orduan
haitzian jende asko ibiltzen uan. Txoazki-
na, lapa, olarrua, andarika, maulixua, ixki-
ra... Ibili beharko! Gaur egun dirua baze-
bilek, baina orduan ezer ez.

(1) Moakila edo morokila: Artairina eta uraz ore
lodi-lodia egin, esne beroaz nahastu eta aixa
bezala jan.



BEDUA
ITURGINTZA S.L
ANTONIO AZPILLAGA



-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA



Marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

pizzak
hanburgesak
bokatak...

ZALLA

Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK




Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



birziklapenarekin bueltaka



"Gizarte kontsumista honetan daramagun bizitza erritmoa ezinezkoa da". Hala zioen orain 10 urteko Baleikeko hitzurrearen egileak. Birziklapenari buruzko erreportajea irakur zitezkeen 1994ko urriko zenbakian. Beira eta pilak jasotzeko kontenedoreak jarri berriak ziren, eta papera jasotzekoak denbora gutxian jarriko ziren. Lehen hilabete hauetan Zumaiako herriak modu ezin hobean erantzun zuela esaten zen. Natur Taldea bilketa bultzatzen zuen. Ikusi dugunez, 10 urte geroago, batzuk errauste planten aldeko apustua egiten dute birziklapenaren ordez.

5. zenbaki honetan Lucia Lakarra dantzaria elkarrizketatu zen. Zumaiako dantzari internazionaltzat jotzen zen garai hartan. "Ikusleen txalo zaparradek sufrimendu guztiak konpentsatzen eta ahaztarazten dizkizu", zioen Luciak. 13 urte-

rekin, dantza serioски hartzeko, herria utzi beharrean izan zena, urteen poderioz, munduko dantzari handiena bihurtu da Lucia. AEK eta Udalaren arteko auziak jarraitu egiten zuen. Bi gutun irakur zitezkeen, Imanol Garaterena eta AEKko langile beraiena. "Egungo udal gobernuaren nahia AEKrekin zerikusirik ez lukeen euskaltegi bat sortzea izan da", zioen garai hartan Hezkuntza Batzordeko zinegotzia zen Imanol Garatek. AEKren euskaltegiko langileek honako galdera lutzaten zuten: "Zergatik eztabaidatu da proposamen bakarria mahai gainean bi egonik?". Gaiarekin lotuta, Zumaiako AEK-k lokal berri bat zabaldu zuen. Antimilitarismoak sekulako oihartzuna zuen garai hartan. Iñaki Uranga Mujikak, Zumaiako bigarren objektoreak, bizitako esperientziak kontatzen zituen. "Tribunal batek zure kontzientzia juzgatzen zuen. Barregarria iruditzen zitzaidan", zioen Iñakik. Kirolen orrietan, Itxas-Gain elkarteari buruz idazten zen. 1968an sortutako elkarte honetan egindako lan gogoraren fruituak jasotzen hasi ziren. 10 urte geroago, munduko txapel-dun batek eta makina bat txapelketetan irabazle suertatu diren kirolariak elkarrekin honen kamiseta janzen dute. Ostarrena taldekoak ibilbideari hasiera eman zioten 1994ko urrian. "Delicatessen" pelikularekin hasi zen zine forum denboraldia. 10 urte geroago, hor dihardute, gogotsu, nahiz eta hileak zuritzen hasi zaizkien. "Amazonaseko oihana txikitzen ari gara zuhaitzak zaindu beharrean, kontutan izan gabe berau dela oxigeno sortzailerik garrantzitsuena, petrolio putzuak eten gabe esplotatzen ditugu, eta meategietan beste hainbeste. Noiz arte horrela?". Horixe galdetzen dut nik ere, noiz arte horrela?

Tapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZEMAIJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

hilerokoarentzat kopa

Hilabete honetan, Baleiken eskaintzen didaten txoko hau aprobetxatuko dut, produktu berri baten promozioa egiteko; irakurtzean, gaiak duen garrantzia ikusita, guztiok ulertuko duzue hartu dudan lizentzi hau. Berri hau, batez ere emakumeei zuzendua dago, baina oro har gizarteak ezagutu behar duen berrikuntza bat da. Nik duela 6 hilabete izan nuen bere berri, eta konbentzimendu osoz erabili dudanez, berataz hitz egitea erabaki dut.



IzagaGarcia
Dietista eta
iridologoa

Hilerokoa, emakumeok hilabetero, kondizio normaletan edo haurdun ez bagaude, izaten dugun prozesu naturala da. Estrojenoeak, endometrioia prestatzen dute 14 egunetan obulua ernaldutako ezkerrean jasotzeko. Obulua ernaltzen ez bada, handik 14 egunetara endometrioia kanporatzen dugu, maginatik odola galduz. Prozesu honek, 3-5 egun irauten du, eta emakume bakoitzak odol kopuru desberdina jariatu badezake ere, guztiok behar izaten dugu odol hau jasotzeko metodoren bat edo beste. Lehen (duela ez hainbeste) kotoizko oihalak erabiltzen ziren, bere eragozpen guztiekin. Gerora, erabilera bakarreko konpresak agertu ziren merkatuan, hasieran zelulozazkoak, eta denborarekin askoz sofistikatuagoak: ehun xurgatzaile berriak, forma anatomikoak...Eta azkenik, tanpoiak, bere garaian izugarriko iraultza suposatu zutenak. Produktu hauek, beti ere, erabilera bakarrekoak dira, hau da, behin erabilia, zakarrontzira bota eta garbi bat jarri. Sekula pentsatu al duzue zenbat konpresa eta tanpoi erabiltzen ditugun eta hauek zenbat kutsatzen duten? Britainia Handian eginiko ikerketa baten arabera emakume bakoitzak 17.000 konpresa edo/eta tanpoi erabiltzen du bere bizitzan...Tanpoiak, bestalde Shock Toxikoaren sindromearekin lotura daukate, gaitz honek infekzio larriak eta heriotza ekar dezakeelarik.

Honen aurrean, izugarriko metodo eroso, eraginkor, osasuntsu eta ekologikoa dago merkatuan, oraindik ezezaguna baina kontutuan hartzekoa: hilerokoarentzat kopa. Kanpai itxurako silikonazko kopa hau, maginan sartzen da eta odol menstruala jasotzen du, segurtasun osoz. Behin betea dagoela, kopa maginatik atera eta konketan hustu eta urarekin edo paper batez garbitu ondoren, berriaz maginara sartzen da. Horrela hurrengo aldaketa arte. Hilerokoa bukatzean, ur irakinetan esterilizatu behar da. Kirola egiteko (igeriketa baita), mendirako eta lotarako erabil daiteke, eta bataz beste 10 urteko bizitza dauka. Bena sistema iraultzaile eta praktikoa da; pentsa zenbat diru aurreztu dezakezuen, ingurugiroari eta zeuen osasunari egiten diozuen faborearen eta "erabili eta bota" sistema kontsumista honen aurrean egiten duzuen aukera etikoan.

Nik probatzera animatzen zaituztet, harrituta bainauka bere erraztasun eta erosotasunagatik, eta era berean Urriak 14, osteguna, arratsaldeko 19:30ean SIWA Belardendan egingo dugun Informazio-Hitzaldira gonbidatzen zaituztet.



B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkeztu ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa "luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien urteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazatxoa z/g. Tel: 943 861 322

olagarroz betetako piper gorriak

Sukaldaritza

H SAGAIAK,
6 lagunentzat:

Betegarrirako:
Olagarro bat, kilo ingurukoa.
Tipula bat.
Piper berde bat.
Piperrauts pikantea (pixka bat).
Egindako tomatea (koilarakada bat).
Ardo zuria (basokada bat).
Irina (koilarakada bat).
Esnea (basokada bat).
Gurina (pixka bat).

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Iraileko aldizkarian olagarroz betetako piper gorrien errezeta gaizki atera zen. Hemen duzue Beñatek proposatzen dizuen jaki goxoa. On egin eta barkatu gaizki esanak.


Nola prestatu:

Tipula txiki-txiki egin eta piper berdearekin batera oliotan erdi egosi. Gehitu olagarroa, txikituta, eta bueltak eman. Erantsi gurina, irina, piperrautsa, ardo zuria eta tomatea; eman bueltak, ondo, eta gehitu esnea, kroketen masa bezala geratu arte. Utzi hozten. Olagarroa egosten ibilitako urarekin, berriz, txipiroi saltsa prestatu..

Bete piperrak, berotu eta txipiroi saltsaren gainean jarri. On egin!

Oharra: Olagarroa egosteko ur asko behar da, gatzik gabe, tipula oso batekin. Kilo inguruko olagarroa egosteko 40 minutu behar dira, eta hamabost minutu utzi.

Sekretu bat: egositakoan, eta ur guztia kendutakoan, xerratan luzetara moztuta, hirinetan pasatu eta frijtituta, olagarroa mundiala dago!



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



Arkupe

Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

puntocom

iraila webgunean

Pasaberri dugun hilabeteen mugimendu handia izan da webgunean. Egun batzutan, ehunetik gora izan ziren bisitariak. Hemen aldamenean, irailko inkestaren emaitzak ikus ditzakezue. Baita ere, autorik gabeko egunari buruz erabiltzaile batek idatzi duena. Ah! eta erabiltzaile egiten bazara talasoterapiako erlajazio saio bat doan. Hori pagotxa!!



Jasotako iritziak

Torkuato 2004/09/08 - 07:49 AM

Aurena: nik ere oinezkoentzat izatearen alde bozkatu det, eta aitortzen det inoiz edo behin kotxez joan izan naixela enkariguak egitera. Baina, benetan beharrezkoa danean (karga eramateko, etab.) non aparkatuko litzake? Moitako panorama ikusRa... Parrokiaren azpian lurrazpiko aparkalekua egin beharko ote da?

Autorik gabeko egunean kaosa poligonooan

NORK: Wali **NOIZ:** 2004/09/29-08:24 **GAIA:** Bestelakoak

Autorik gabeko eguna ospatu zen atzo, eta Udala asko arduratu zen hemian autorik ez ibiltzeaz. Txaperoak zubi txikian jami eta auto guztiak bueltan bidaltzen zituzten. Nora joaten ziren ordea auto hauek? Poligonora. Horrek poligonooan izugarriko kaosa ekarri zuen.

Askotan daukat Zumaiara paulean hasi eta zubi txikian amaitzen denaren zentrazioa. Atzo izan zen horietako beste egun bat. "Hemian" oinezkoak lasai pasiatu zitezkeen bitartean, poligonooan oso bestelakoa zen egoera autoak nonahi zeudelako aparkatuta: espaloietan, zebra-bideetan, debekatutako gunee guztietan. Zaila zen oinezkoentzat lasai ibiltzea.

Arazoa oso simplea zen: ez zegoen zubi-txikitik aurrera autoz joaterik, beraz, autoak poligonooan aparkatzen ziren. Eta poligonooa urtean zehar ere aparkatzeko toki zaila izanik: KAOSA. Txaperoek bazuten nahiko lan trafikoa debekatzen, beraz, atzo ez zegoen poligonooaz arduratuko zen inor.

Atzokoaren helburua gidariak hezi eta kontzientziaztea bazen, kontrakoa lortu zutelakoan nago.

Baleike.com-ekin talasoterapia doan

NORK: Baleike **NOIZ:** 2004/09/30-08:57 **GAIA:** Bestelakoak

Baleikek Zelai Talasoterapiaren doan erlaxatzaera gonbidatzen ditu bere erabiltzaileak. Nola? Oso erraz: erregistratuz.

Irriaren 30a baino lehen Baleike.com-en erregistratzen diren erabiltzaile guztien artean **Zelai Talasoterapiaren erlajazio saio bat** zozketatuko dugu.

Parte hartzea erraza da: Baleike.com-en **erregistratuta** egon besterik ez duzu behar. Erregistratzeak ez du ezer suposatzen, zure posta elektronikoa ematea bakarrik. Gainera, argitaratzen ditugun berri guztiak postaz jasoko dituzu, egunean egongo zarelarik.

Animatu erregistratzera, eta animatu zure ingurukoak. Parte hartu Baleike.com-en!

Kresala
— edergintza —

Amaia Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

D'Ana
Fleapaindegia

Kantauni Plaza 6, behea tel. 943 117 406

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Goikoetxea eta Enbil hirugarrenez munduko txapeldun

Hirugarren urtez jarraian Iñaki Osa Goikoetxea eta Gotzon Enbil pilotari zumaiarrak munduko zesta txapeldun dira. Irailaren 24tik urriaren 2ra bitartean Donibane Lohitzuneko Campos Berri pilotalekuan jokatu zen txapelketa, eta bertan, irabazleez gain, herriko beste hiru pilotari izan ziren lehian.

Bi bikotek hartu dute parte munduko txapelketan. Alde batetik Goikoetxea eta Enbil zeuden; bestetik, Luis Mari Alberdi eta Imanol Lopez. Lau pilotari hauez gain, ordezko lanetan, Antxon Alberdi aritu zen.

Sailkatze faseari ez zioten ekin uste bezain ondo munduko txapeldunek, Egiguren eta Arriagaren aurka lehen partida galdu baitzuten 35-28 emaitzarekin. Bigarren partidatan, finalean etsai izango zituzten Baronio eta Irastorza lapurtarren aurka jokatu zuten eta baita irabazi ere (35-27). Garaipen horrek finalerdietarako txartela eman zien Goikoetxea eta Enbili

Alberdi II.ak eta Lopezek ere ez zioten hasiera ona eman txapelketari. Berriatuko Bereikua eta Felixen aurkako partidatan 35-27 emaitzarekin galdu zuten. Bigarren partidatan, Etchalus eta Barrondoren aurka jokatutakoan, 35-24 izan ziren irabazle, eta hauek ere finalerdietan sailkatu ziren.

Ez zen zorte handia izan, eta Zumaiako bi bikotekatak bestearen aurka jokatu behar izan zuen. Finalurreko honetan, Iñaki eta Gotzon Luis Mari eta Imanol baino hobeto aritu ziren eta 35-22 emaitzarekin irabazi zuten.

Txapelketako azken partidatan, Iparraldeko Baronio eta Irastorza pilotariak izan zituzten aurkari. Partida honen ondoren, hirugarren txapela irabazi zuten zumaiarrek, baina, inongo zalantzarik gabe ez zen izan aurrekoak bezain atsegina.



Partida ez zen jendeak nahi zuena izan, partida hasi berritan Eric Irastorzari, Bereikua eta Felixen aurkako finalerdian lesionaturiko orpazurdako mina berritu baitzitzaion. Markagailuak 4-3koa erakusten zuenean Bidarteko atzelaria aldageletara sartu zen. Bertan, Nazioarteko Federazioko medikua saiatu zen atzelariak jokatzeko jarrai zezan. Lapurtarra berriro kantxaratu zen, baina 6-5ekora arte baino ez zuen irauten. Orduan, berriro ere aldageletarako bidea hartu behar izan baitzuen. Bigarren aldiaren ostean, dena den, ezin izan zen jokatzerantz itzuli. Arau berriek ordezkorik onartzen ez dutenez, Irastorzaren lesioak automatikoki eman zien Munduko txapela Goikoetxea eta Enbili. Gero, txapelketaz kanpo, Alberdi III.ak, Irastorza ordezkatu eta lau jokalariek jarraitu egin zuten jokatzeko. Finalaren ordezkoan, Goikoetxea eta Enbil 35-18 nagusitu ziren. Finaleko gorabeherek ez zuten inor ase, eta finala irabazi bazuten ere, Goikoetxeak eta Enbilek beraien atsekabea azaldu zuten: «Gu kantxa gainean irabaztera etorri gara».

ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Erretzelio

OIKIA 945 447683

z u m a i a k o a r t e e z h o r r e n e z a g u n a

Gaur hasiko den artikulu seriean Zumaian dau- den artelan ez oso ezagunen azterketa arina egin nahi dut. Ezezagunak dira, beti ikusitako artelanak izan arren, liburuetan edo turismo orrietan gutxitan aipatzen direlako. Horregatik

zerbait ikertzea eta jendearen arreta pixka bat piztea izango litzateke idatzi sorta txiki hauen helburua. Hilean behin argitaratuko dira eta garai eta mota ezberdinetako artelanak tarteka- tzeko ahalegina egingo dut.

Andre Mariko Diptikoa

ISMAEL MANTEROLA

Aldareari begira jartzen bagara, erretaula nagusiaren ezker aldean dago. Bi oholez osatutako olio pintura dela dirudi, nahiz eta teknika zehaztea zaila den eta gaur egun ohol bati itsatsita dagoen koadro bakarra osatu.

Bi emakume irudi azaltzen dira, Santa Katalina Alejandriakoa (ezpata eta herio- tza eragin zion gurpilaren zatiarekin) eta Santa Barbara (presondegia izan zuen dorrea eskuan duela). Biak martiriak eta debozio handikoak XIV. mendetik XVI. mendera bitartean. Adibidez, Santa Katalinaren irudiak ikus ditzakegu Parrokiko Mendaro Marinelaren eskaintza oholean eta S. Bernaberen triptikoan Elorriaga familiako emakumeak zaintzen.

Horregatik, XV. mendearen bukaeran



edo XVI. mendearen lehenaldiziko erdialdean data daiteke pintura lan txiki hau. Flandesko pinturaren eragin handi- koa da, handik etorri baitziren pintatzeko era berriak eta santa hauen gaineko debozioak. Hala ere, goian duen arkitek- tura zatiak gotikoaren aztarnak ditu eta

behean dauzkan erliebeak Errenazimen- duko dekorazioa, horregatik XVI. mende- kotzat joko nuke nik, bi estilo ezberdinen arteko talka garai hartan gertatu baitzen gure artean.

Pintatzeko eragatik, beraz, Flandesko eraginpean garatu zen hispano-flandestar estilokoa dela esan dezakegu, nahiz eta Europa guztian indar handiz sartzen ari zen Errenazimenduko ezaugarri batzuek dituen. Agian Flandesko estiloa imitatze- ko Gaztelan osatu zen tailer batetik irten zuen.

Garai hartan santa martiriak balore batzuek simbolizatzen zituzten; horrela, Santa Katalinak birjintasanaren defen- tsaren esanahia izan zuen eta Santa Bar- barak, dorrearen barruan hil zenez, inda- rren sinbolo bilakatu zen trumoiaren eta ekaitzen babesle izan baino lehen.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatuak • Aseguruak
Finika Administrazioak

txomin aguirre 4. behea
20.750 zumaia (gipuzkoa)
E-mail: rjazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax. 943 862746

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 943 861670

Flandesko eraginpean
garatu zen
hispano-flandestar
estilokoa dela esan
dezakegu

**Aldareari begira
erretaula nagusiaren
ezkerraldean dago
diptikoa.**



Irudi sinpleak azaltzen zaizkigu arkitektura marko baten barruan eta hondo urdin ez zehatz baten aurrean (urdinaren bi tonu igartzen dira marra ahoaren altueran dutela). Lurrak ere zehaztasun gutxi du, hondoan ihes egiten duen espazioaren itxura emateko juxtu-juxtu.

Trebetasunez pintatutako aurpegiak eta jantziak badi-tuzte ere, ez da gauza bera gertatzen eskuekin. Aurrez aurre azaltzen den Santa Katalina eta perfil zorrotzez Santa Barbara, ez daude oso indibidualizatu-ta garai hartan santen irudiekin gertatzen zen modura. Kolorea, berriz, bizia da eta santen jantzietan biltzen da, Santa Katalinaren ohiko berde granate-marroian eta Santa Barbararen gorribeltzean. Dotoretasuna gustuko zuen pinturak luxuzko xehetasun handiz, jantzi ederrez eta garaiko modaren arabera pintatzen zituen irudi erlijiosoak; horregatik, pintura osoak aberastasun itxura ematen du.

Emilio Perez
Elektrogailu, Inerbia eta instalazio
elektrikoko salmenta eta konponketak

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAILA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaila

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

imanol azkueren egun handia

Zalantzarik gabe egun handia izan dezake Imanol Azkuek aurki. Euskadi Sarietako finalista izendatu dute haur literaturako kategorian berak idatzitako "Gaur egun handia da" liburuxkarengatik.

Iaz XXI. Lizardi saria jaso zuen imanol Azkuek ipuin honekin, eta orain liburu hori Haur literaturaren arloan Euskadi Sarirako finalista izendatu dute. Orain arte hautatutako artean bat berezi eta hari emango diote sari nagusia, urtea amaitu baino lehen. Lan laburra da Imanolena, baina bide luzea egiten ari dena.

Euskadi Sari horren bitartez, haur eta gazteentzat euskaraz idatzi eta argitaratutako lan baten literatur kalitatea saritzen da. Eusko Jaurilaritzen Kultura Sailak ematen duen saria da eta asmo bikoitza du: saritutako lana zabaltzea eta egilea bera zein gainerako lanak ezagutaraztea. Sari potoloa da diruari dagokionez, 10.600 _ ematen dituzte, eta horrez gain beste 2.500 _ jasotzeko aukera ematen dute, lana beste hizkuntza-aren batera itzuli eta argitara emateko. Ez du erraza izango Imanolek saria irabazteko,



euskal haur literaturako izen handiekin lehiatu beharko baita. Hona aurtengoan haur eta gazte literaturako alorrean finalista

izendatu dituzten idazle eta obrak: Imanol Azkueren "Gaur egun handia da" (Erein argitaletxea); Juan Kruz Igerabideren "Okili-kiki" (Aizkorri argitaletxea); Ramon Saizarbitoriaren "Kandinskyren tradizioa" (Erein); Jesus Mari Olaizola Txilikuren "Osaba Bin Floren" (Elkar argitaletxea); Felipe Juaristiren "Haydn-en loroa" (Aizkorri argitaletxea).

'Gaur egun handia da' liburua Erein argitaletxeak atera zuen iaz eta beharbada beste argitalpen bat prestatu beharko dute, saria jaso ala ez, izendatzea bera ohore eta sari nahiko handia delako. Erraz irakurtzen den lana imanolena, ia etengabe irribarrea eragiten duena. imanolek berak honela kontatu zigun istorioaren nondik norakoa, 2003ko maiatzean Baleiken egindako elkarrizketan: *'Ipuinean egun handi bat kontatzen saiatu naiz, eta egun handia da familiak sari bat jasotzera joan behar duelako. Aita idazlea da eta literatur sari bat jaso zuen. Narratzailea 8 urteko semea da, bere ikuspegi berezitik dago kontatuta ipuina eta familiaren hainbat gorabehera azaltzen ditu'.*

TOMAS TABERNA
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

AIZPURUA
LIBRERUEN DENDA

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Xanti
ALTZARIAK S.L.

Mota guztietako altzariak
Xanti Osa

Amoia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

ANA
ESTABO ZARPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala
KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

antzerki denboraldia



ITZIAR GARATE

Aurtengo udazkena ekitaldiz betea datorkigu. Hostoen erorketarekin batera zinea, ipuin kontaketa eta antzerkia, besteak beste, izango ditugu ikusgai herriko leku ezberdinetan.

Lehenik eta behin, antzerkian aipagarri diren bi lan ikusi ahal izango ditugu: "La Ratonera" eta "Cocidito Madrileño". Lehenengo, Londresen 52 urtez jarraian izan da antzetzua eta azken urtean Donostian arrakasta handia izan ondoren Zumaiara iritsi da. Bigarrena, aldiz, gira labur baina indartsu baten barruan sartu behar dugu. Azaroan hasiko dira antzetzten eta maiatzean amaituko, lehenago Bilboko Arriagatik pasa ondoren.

Baina azaroan, hala ere, izango da zer ikusirik. Maskarada taldearen "Euskara sencilloaren manifestoa" lana izango dugu. Patxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik barre egiteko aukera ziurtatua dugu euskaldunberri eta euskaldun zahar baten eskutik. Farrea eta kalitatea nahasten dituen lana da: euskarazko gidoigile onenaren Max Saria jaso zuen 2004. Urtean Patxo Telleriaren eskutik.

"La Ratonera": Misterioaren erreginak, Agatha Christiek, idatzirik gidoi bat da. Hasiara batean irratirako prestatu bazen ere, azkenean antzerkirako bidea hartu zuen. Idazle honen testuetan nagusitzen den misterio horrek ere hau ikutzen du, azkenerarte ez bait da jakingo antzerkiaren benetako amaiera. Ramon Bareak zuzenduriko lana izango da eta aktoreen artean Jaime Blanch edo Ane Gabarain bezalako izenak izango dira. Urriak 22, ostirala,

22:00. Aita Mari Zinema aretoan. Sarrerak aurretiaz ere izango dira salgai: urriaren 19, 20 eta 21ean Kultur Etxean.

"Cocidito Madrileño": Irrati saio ezagun baten gidoia erabiliz agertokira moldatutako lana da. Euskara, homosexualitatea, ikastolak, eliza, euskal kirola eta hainbat gai halako umore puntu bizi batekin agertzen ditu. Errealitatearen alor ezberdinak umorea erabiliz azaldu nahi dizkigute. Abenduak 17, ostirala, Aita Mari Zinema aretoan.

Baina antzerkia ez da soilik helduen begietarako. Haurrek ere izango dute gozatzeko aukera. Urriaren 24an, Dar-Dar taldeak "Egizu lo, Tartalo" antzerkia eskeiniko du eta abenduaren 26an Hankatxo taldearen "Xomorroak" lana ikusi ahal izango dugu. Azken honetan Fermin Muguruzak hartu du parte gidoia osatzerakoan. Horretaz gain, ipuin kontaketa eta musika ere izango dira udazken honetan entzungai.

URRIA:

22, ostirala:

- 17:30 Haur Liburutegian ipuinkontaketa "ipuin - opari"
- 22:00 Aita Mari aretoan, antzerkia "La Ratonera"

24, igandea: 12:00 tan Aita Mari aretoan, haur antzerkia: Dar Dar taldearen "Egizu lo, Tartalo"

AZAROA:

19, ostirala 19:30tan Zarzuela kontzertua:

Aita Garayoa abesbatzaren eskutik "El Caserio"

26, ostirala

- 17:30 Haur Liburutegian ipuinkontaketa "Oihandarrak"
- 22:00 Antzerkia: Maskarada taldearen "Euskara sencilloaren manifestoa"

ABENDUA:

17, ostirala

- 22:00 Aita Mari aretoan "Cocidito Madrileño"

26, igandea

- 12:00 Hankatxo Taldearen "Xomorroak"



"Egizu lo, Tartalo"

 OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behe

tel: 943 86 16 66

e-mail: denda@ostolaza.com

www.ostolaza.com

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

ZINE FORUM

Urriak 21, osteguna, 22:15ean

The Station Agent

Zuzendaria: Tom McCarthy

Aktoreak: Peter Dinklage, Patricia Clarkson

Trenen triki-trakak bezala, Tom McCarthy-ren lan bikain honen metrajeak liluratu egingo gaitu bere hunkiberatasunarengatik, eta gure buruetako irudietan betiko grabatuta utziko du tren geltoki huts eta utzia, eta Finbar McBride izeneko pertsonaia han ezarrita betiko, edo betiko ezarrita egotea nahiko genuke, behintzat. Zuzendariak naturaltasunez deskribatzen du nano protagonistaren personalitate konplexua, eta hori, egia esan, ez da oso arrunta zineman. Horretan zerikusi handia du, ordea, Peter Dinklage-ren presentzia indartsuak, ezin hobeto jokatzen baitu gizarte pariaren papera; pelikulan, protagonistak nahiago izango du bere burua erbestera, atzetik dabilzkien begiradei ihes egiteko, betiere jendearen begiradak burlazkoak, amore emaileak eta beldurra eragiten dutenak baitira. Inorena ez den lurtean sustraitua eta ahaztutako tren geltoki baten babesean, protagonistaren bizitzaren norabidea aldatu egingo da, ezagutuko dituen pertsona batzuei esker. Izan ere, ez ohiko talde terapia izango du bi lagunekin: bata, emakumezkoa, famili gertaera baten zauriak markatua; bestea, gizonezkoa, kubatarra, bizitzeko grina kutsatzeko amorratzen. Norabide finkorik gabeko hiru gizaki elkartuta, trenen joan-etorriari begira, isilaldiak eta garagardoa partekatzeak dakarren konplizitate sanoan, xehetasunak azaltzen handituz doan kontakizunean.



Azaroak 4, osteguna, 22:15ean

Zatoichi

Zuzendaria: Takeshi Kitano.

Aktoreak: Beat Takeshi, Tadanobu Asano, Michiyo Ogusu.

Norbaitek pentsatzen bazuen Bushido kodearen gailurrean Tom Cruise samurai hollywoodtarra besterik ez zegoela, nahitaez ikusi beharko du «Zatoichi» harribitxia; izan ere, mugimenduan dabilzan irudien jaialdi liluragarria baita pelikula hau. Takeshi Kitano aldagaitzaren azkeneko lana eredugarria da ausardi eta arrisku artistikoan, batez ere lan bikain honetan, harmonia ederrean, bat egiten duten generoei «El verano de Kikujiro»-ren egileak zeinen ederki eta zeinen seguru heltzen dien ikusitakoan. Betiere leiala bere zaio diskurtsoari eta Kitano estilo gogorra eta zuzena erabiltzen du lanaren egiturari heltzeko, eta pelikulan denetarik aurki daiteke: sentimenduak, artifiziorik gabeko poesia, barrea, musikala eta ekintza, eta hori guztia ezin hobeto bateratuta samuraien pelikula batean, XIX. mendeko Japonian. Japoniako kulturako ikono herritar bat erreferentziazat hartuta, Kitano zinema eredu bat berregiten du, sormenezko eta mugarik gabeko ikuspegi batetik. Kameraren mugimenduak neurtuak dira, keinuak eta hitzak behar adina eta nahikoak, eta horiek guztiek lagundu egiten diete etengabeko erritmo aldaketei, bizitasuna eta freskotasuna gainezka daukaten koreografiekin. Amaiera, berriz, apoteosikoa.



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

asteburu mikologikoa pintxojana baino zerbait gehiago

Udazkena, orbelak airez aire, zizak, gibelurdinak eta onddoak, "Nafarroako inbasioa", Asteburu Mikologikoa Zumaian. Urriaren 29an hasi eta 31n amaituko da aurtengoan perretxikoei buruzko asteburua. Irteera eta erakusketa izango dira, ohi bezala, baina, berrikuntza bat ere izango da: "poteo mikologikoa" ere izango dute perretxikozaleek.

Intsektuei buruzko erakusketa batekin hasiko da Asteburu Mikologikoa. Erakusketa hilaren 25etik 31ra izango da ikusgai Oxford aretoan eta "Gipuzkoako intsektuak" izena du. 24 kutxatan, Gipuzkoako zenbait intsektu ikusi ahal izango ditugu. Alboan, argibide panelak izango dira. Oraindik ere guztiz zehaztu gabe badago ere, herriko ikastetxeetako haur eta gazteak erakusketara gonbidatzeko asmoa dute antolatzaileek, hau da, Zumaiako Natur Taldekoek.

Ostiralean "poteo mikologikoa" egingo da. Asteburu Mikologikorako perretxiko pintxoak prestatzen dituzten tabernetan egingo da txikiteoa. Taberna bakoitzean perretxikoen sailkatzeari buruzko argibideak emango dira. Horretaz gain, jaki hauekin egindako pintxoak ere dastatu ahal izango dira.

Larunbat goizean, berriz, perretxikoak biltzeko irteera izango da. Irteeran parte hartuko duten lagunak ahalik eta leku gehie-



netan eta hainbat ekosistematn sakabanutuko dira. Helburua ahalik eta perretxiko mota ugariak biltzea da. Batzuk dunetara joango dira, beste batzuk artadi eta pagadietara. Goizean bildutako perretxikoak arratsaldean sailkatuko dira, Aranzadi elkarteko kideen laguntzarekin.

Bezperan bildutako perretxikoak igandean Odieta pilotalekuan ikusteko aukera izango da. Goiz eta arratsalde izango da zabalik erakusketa. Antolatzaileak bereziki saiatuko

dira bisitarien galderak erantzuten eta zalan-tzak argitzen.

Errauskailuak

Naturaren inguruko jardunaldiek jarraipena izango du Asteburu Mikologikoa amaitu eta berehala. Azaroaren 1etik 7ra errauskailuei buruzko erakusketa izango da Oxforden. Gaiarekin lotuta, Arnasa kolektiboko kide batek errauskailuei buruzko, eta bereziki, birziklapenari buruzko hitzaldia eskainiko du.

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



agenda

IRTEERAK

- Turismo bulegotik: tel: 943-143396
- Urriak 16: La Arboleda-Trapaga
- Azaroak 27: Monasterio de la Oliva-Sos del Rey Catolico
- Urriak 23an, Bilboko Arriaga aretoan, YERMA dantza ikuskizuna ikustera. Sarrerak kultur etxean urriaren 6tik 19ra.

- gaztetxola@euskalnet.net
- Haur zinema: azarotik aurrera, igande arratsaldetan, hamabostean behin, Aita Marin.
- Malen Etxea emakume elkartearen topaketak, urriaren 23an hasita: tailerrak, hitzaldi eta antzerkia.
- III Klarinete Maratoia: abenduaren 17tik 20ra. Izenematea azaroan Ubillos Musika Etxean.



Yerma Arriagan

Federico Garcia Lorca-ren antzezlanean oinarritutako dantza ikuskizuna izango da urriaren 23an Bilboko Arriaga antzokian. Hau ikustek irteera egingo da Zumaiatik. Sarrerak aurrez salgai daude Forondan hilaren 19a arte.

ERAKUSKETAK

Urriak 8-24

AMALUR egur langintza erakusketa.

Urriak 26-azaroak 7

Natur Taldearen erakusketa: Aste Mikologikoa, entomologia,...

Azaroak 12-28

GORKA LARRAÑAGAREN pintura.

DEIALDIAK

- Maketak grabatzeko dirulaguntzak: oinarriak kultur etxean. Epea: azaroaren 23a.
 - Ludoteka berriz zabalik: urriaren 5etik aurrera, asteartetik ostiralera, 17.00etatik 19.30etara. bazkidetza eta informazioa: 943-143264.
 - Gaztetxola zabalik: asteazkenetik larunbatera, 16.30-20.30.
- Tel: 943-117438

IKASTAROAK

Informazioa:943-861056

KZ Gunea:

Tel: 943-862866

Interneten nabigatzeko aukera, eta gainera ikastaroak:

- Oinarrizkoak: 20 ordukoak Urriaren 4tik 19a eta 25etik azaroaren 5era. 9.00etatik 11.00etara
- Mintegiak: ordu 1, 2 edo 4koak. Gai ugari sarean: lan bila, oporrak antolatzen, kirola, gastronomia,...

Pintura Tailerra: urriaren 13tik maiatzera. Antolaketa bilera: urriak 7, osteguna, 18.30ean Foronda kultur etxean.

KUTXA GELAK: Photoshop, Sukaldiritza (Pasta nola prestatu), Vainica eta Punto

smock-nido de abeja eta Tai Chi Chuan.

Informazioa: Kutxan edo www.begira.com

Kontrol Mentala: urriak 23an hasita. Larunbatetan 10.30etik 12.00etara. Kultur Etxean

Perkusio Afrikarra I eta II: urriaren 13an hasita. Asteazkenetan, 18.00etatik 19.30era eta 19.30etik 21etara.

Sabel dantza.Azaroak 13 eta 20 larunbatak. 11.00.etatik 14.00etara eta 16.00etatik 19.00etara. Izenematea kultur etxean azaroaren 8a arte.

URRIA

- 7, osteguna: 22.15ean Aita Marin, zine forum saioa "Lost in translation"

- 13, asteazkena: 19.00etan Gizarte Zentruan, Katxalin Elkartearen hitzaldia, Bularreko Minbiziaz buruz

- 21, osteguna: 22.15ean Aita Marin "Vias cruzadas"

- 22, ostirala:

- 17.30etan Haur Liburutegian ipuinkontaketa "Ipuin-opari"

- 22.00etan Aita Mari aretoan, antzerkia "La ratonera"

- 24, igandea: 12.00etan Aita Mari aretoan, haur antzerkia: Dar Dar taldearen "Egizu lo, Tartalo"

- 29tik 31ra, Asteburu Mikologikoa.

- 29, ostirala: 19.00etan Aita Mari aretoan, Beheko Plaza abesbatza eta Oreretako Maialen abesbatzaren kontzertua.

AZAROA

- 4, osteguna: 22.15ean Aita Marin zine forum saioa "Zatoichi"

- 18, osteguna: 22.15ean Aita Marin zine forum "Capturing the Friedmans"

- 19, ostirala: 19.30ean Zarzuela kontzertua: Aita Garayoa abesbatzaren eskutik "El Caserio".

- 21, igandea: 12.30ean Maria eta Jose aretoan, Udal Musika Bandaren kontzertua Santa Zezilia ospatuz.

- 26, ostirala: 17.30ean Haur Liburutegian ipuinkontaketa "Oihandarrak"

22.00etan antzerkia: Maskarada taldearen "Euskara sencilloaren manifestoa"

MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569

ARGIA
ARROPADENDA
Itzurun, 1 Tel. 943 143224

METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 862620

AUTO-ESKOLA
PRACTICAS
ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea
Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia
Maxi
Solarium
ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**
LORATEGIA

*Ezkontzak, Bqtaioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak*



Etxez etxeko zerbitzua
Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611